



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2019KO AZAROAREN 29AN
GOIZEKO 10:00ETAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Lur Etxeberria Gurrutxaga.

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2019/11/12.

Batzarkideek, 2019ko azaroaren 12ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- EKINTZAILEENTZAT KABIENE ELKARTEAK DUEN ELKARLAN-GUNEAN
EGONALDIRAKO DIRULAGUNTZA BEHIN BETIKO ONARTZEA (HASIZ HAZI BEKA).**

Ikusirik

2019ko maiatzaren 31ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Hasiz Hazi beka, ekintzaileentzat Kabiene Elkarteak duen elkarlan-gunean egonaldirako diru-laguntzaren oinarriak arautuz eta aurkezteko epea irailaren 30 arte emanez.

Diru-laguntza honen bitartez proiektu berri bat duten bi ekintzaileri urtebeteko egonaldia ordainduko zaio Kabiene elkarteak duen elkarlan-gunean, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izan dezaten.

Epea amaituta, eskaera bat jaso da.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak 2019ko azaroaren 8an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen Hasiz Hazi beka diru-laguntzen inguruan.

Ebazpen proposamena azaroaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, interesatuei hamar eguneko epea emanez alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko ebazpenaren berri eman da.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.



Usurbilgo Udala

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Hasiz Hazi beka, ekintzaileentzat Kabiene Elkarteak duen elkarlan-gunean egonaldiako diru-laguntzaren oinarriak (GAO, 2019/05/31).
- Hasiz Hazi beka, ekintzaileentzat Kabiene Elkarteak duen elkarlan-gunean egonaldiako diru-laguntzaren behin behineko ebazpena (GAO, 2019/11/14)
- Kontuhartzaitza Sailaren ziurtagiria.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Ekintzaileentzat Kabiene Elkarteak duen elkarlan-gunean egonaldiako diru-laguntza 1.089 €tako beka bat behin betikoz onartzea.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, 12 hilabetetako alokairu gastua (75 €/hileko), eta honi dagokion %21eko BEZ-a (15,75 €/hileko) izango da.

Bigarrena: Ordainketa lehen zatia, %80a egitea.

Eskatzailea	ENPRESA PROIEKTUA	Hasierako ordainketa %80
Nekane Orkaizagirre	Diseño grafiko zerbitzua	871,20

Hirugarrena: Ordainketaren bigarren %20a memoria eta Kabieneko egonaldiari dagokion faktura agiriak aurkeztu ondoren egingo da.

Laugarrena: Garapen ekonomiko diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.5000.481.241.00.03 (A 2189/2019)

Bosgarrena: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Seigarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:10ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.